

EUSKARAZ BIZI EGUNA, MANIFESTUA 2026

AURKEZLEAK:

Azkenekoz hemen elkartu ginenetik, euskaldunok eta euskaltzaleok izan ditugu hausnartzeko, haserretzeko eta, bereziki, indarrak batuta ekin behar diogula sinesten jarraitzeko nahikoa motibo. Euskara hizkuntza bat ez ezik, izate bat ere badela ulertzen dugu: Zer gera euskera ez bagera? Euskararen herria gara, euskara ahaldunak, euskarak egiten gaitu herri. Euskara izanik herri honen eta berau osatzen dugunon ardatz, aurtengo manifestuan 2026an nabarmentzekoak iruditu zaizkigun eraso, borroka, gertakari eta lan-lerroak ekarri nahi ditugu plazara. Horretarako, hainbat zaraustar gonbidatu ditugu hitzoi ahotsa ematera. Ezer baino lehen, eskerrik asko! zuena da hitza:

1. KOLDOBIKE

Martxoan jakin genuen Erreterriako udaleko oposaketa publikoetan jarritako helegitearen atzean herritar (eta eragile) antolatuak daudela. Aurretik ere susmatu genezakeen, eta orain, jakin badakigu. Ohituak gaude, eskuin muturraren aldetik (VOX edo PP kasu) euskararen aurkako mezu eta ekintzak jasatera. Agerian geratu da ordea, euskararen aurkako oldarraldiak eskuhartze zabalagoak dituela. Tamalgarria bada ere, Espainiar Estatu mailako ezkerreko gisa aurkezten diren espazioetatik ari dira euskararen aurka egiten, legea bera ere errespetatzen ez duten epaileen laguntzarekin. Tamalgarria eta adierazgarria. Esan bezala, euskara ez delako hizkuntza huts bat, euskarak izate bat eta herri bat ordeztzen baitu. **Erasoen aurrean gure erantzuna euskara!**

2. ADEI ETA ARAITZ BERASALUZE

Etxepare Lizeoko eta Seaskako ikasleek txikitatik euskaraz egin dituzte ikasketak eta 18 urte betetzear direnean, Parisetik Baxoko azterketa guztiak frantsesez egitera behartu dituzte. Ikasleek planto egin dute. Ikasle horiek erakutsitako determinazioari eta ausardiari esker, Estatu frantsesaren jarrera mugiarazi dute: 2028ko baxoan ikasgai bat eta bukaerako ahozko handia euskaraz egitea lortu dute. Baina, ez da nahikoa, inolaz ere ez. Estatu frantsesak ikasleek behartuta hartutako erabakiak, sistematikoki eskubideak urratzen dituen hizkuntza politika bati erantzuten jarraitzen du. Borroka honek ordea, bidea zein den erakutsi digu: ikasleok euskararen defentsan batu behar gara.

EAEEn selektibitatean gertatutakoari lotuta berriz, denok ezagun dugu A ereduak itunpeko bost ikastetxeetako ikasle talde batek euskarako azterketan ateratako noten ondoren sortutako iskanbila. Arazoa ez dira 0ak izan, beste irakasgaien kasuan ez baitira pankartak ikusi, ezta salaketa publikorik egin ere. Zergatik gertatu da bada, euskararen kasuan? Oraindik orain, euskara gatazkarako elementu gisa erabiltzen jarraitzen dutelako eta badakitelako instituzioek, hedabideek, hala nola, epaitegiek ezohikotasunez jokatu dutela “euskara” gaia denean. Denek egin dute HUTS! “Euskarak diskriminatu egiten gaitu eta euskal hiztunek pribilegioak dituzte” horixe da sinestarazi nahi duten errelatoa. Errealitatetik ezin urrunago dagoen ipuina.

Gertaera honek agerian utzi du A ereduaren egiturazko porrota. Jaurlaritzak ezikusiarrena egin eta eredu hau defendatu edota euskararik gabeko ikastetxeak diruz laguntzen jarraitzen

duen bitartean, euskara ez da sekula gaztelaniaren maila berean izango. Hala ere, argi geratu da euskara mespretxatu eta beraien seme alabek euskara ez ikastea erabaki duten familia horiek babesten dituela sistemak, horiei gorde baitzaie plaza bana unibertsitatean.

Euskara traba da, euskararen herrian gaztelania inposatu nahi duenarentzat.

3. ERNAI, FAXISMOAREN GORAKADA

Eta izan dadila traba, baita ere, gurean ere gero eta agerikoagoa den jarrera faxisten aurrean. Izan ere, nazioarteak eskuin muturrera eginiko birak, hemen ere gero eta eragin gehiago izaten ari da. Azken urte honetan jazotako gertaera eta erasoak ikusi besterik ez dago:

- Palestinar herriaren genozidioa, eta atzetik Estatu Batuak eta Israelek abiatutako gerra inperialista guztiak.
- Makro ekitaldi eta mobilizazio kapitalista eta faxitak gurera ere iritsi dira. Aurtengo gizonezkoen munduko futbol txapelketa izan da horren adibide goren. Euskaldunoi eta euskal kirolariei beren nazioa ordezkatzeko eskubidea ukatzen zaien bitartean, espainiartasuna, monarkia eta estatu zapaltzailearen inposaketa, espainiar selekzioaren mozkorpean normalizatu nahi izan da, nazio bakarraren errelatoa txertatuz eta sinbologia faxista kaleetara ekarriaz.
- Sinbologia bera errepikatzen da mobilizazio xenofoboetan ere: aste honetan bertan Ceutaren aferaren baitan gure hiriburuetan eskuin muturrak eginiko elkarretaratzeak ikusi besterik ez dugu. Eta ezin ahaztu Donostian diskurtso xenofoboz debekatu dituzte kaleko afari solidarioak. Faxismoak kaleak ez ezik, instituzioak ere bete dituelako.
- Bide beretik jasan dugu euskara, feminismoa eta auzolana ardatz dituen euskal udalekuak Bernedon egitea debekatu ere.
- Eta honela, beste horrenbeste adibide zerrendatu ahalko genituzke.

Guk ordea argi dugu, Euskal Herri euskalduna eraikitzen jarraituko dugu, euskaraz, feminisмотik, auzolanean eta faxismoari ateak itxiaz.

4. LEIRE UDABE ETA MIREN ARANGUREN

Nola sentitzen zara auzoko dendan sartu eta euskaraz jasotzen zaituztenean? Nola bertan bizilagunarekin topo egin eta euskaraz hitz egiteko aukera duzunean? Zer somatzen duzu barrenean beste ama hizkuntza duen batek dendan lehen hitza euskaraz egiten dizunean? Herria bizitzen du merkataritza eta ostalaritza txikiak. Ezinbesteko katebegi dira komunitatea indartzen, baita euskararen eguneroko erabileran eta transmisioan. Gure arteko sozializazioan bapatekotasuna eskaintzen digute eta horrek ere hizkuntza bizia mantentzea bermatzen du. Auzo eta herri biziak zerbaiten parte sentitzen laguntzen digute eta hor premiazkoa da ehun sozial eta ekonomiko indartsua.

Baina Zarautzen herri giroa aldatzen ari da. Azken urteetan ez dira gutxi bai jubilazioagatik, bai errelebo faltagatik, bai lanaren eta gure bizimoduaren aldaketengatik itxi diren merkataritza, ostalaritza eta eskulanarekin lotutako hainbat eta hainbat proiektu (zapatariak, iturginak, jostunak, arrandegiak...), eta askotan haien ordez apartamentu turistikoak besterik

ez dira agertzen. Kaleak hutsagoak daude (negu partean gehiago), langileria paisaia txikituz joan da urtez urte (askok herrian ere lan egiten ez dugulako) eta horrek arriskuak ditu, bai gure harreman sareetan, baita euskararen ahozko jardunean ere. Azken galeretako bat Hizki inprimategiarena izan da eta, hemendik, bihotzez, eskertu nahi dugu urte luze hauetan herriarentzat eta euskal komunitatearentzat egin duzuen lana. Aupa zuek! (disfrutatu jubilazioaz...jajajajaj)

Zarautz herri bizia eta bizigarria izatea nahi dugu, eta, horretarako, ezinbestean, euskalduna. Horregatik, gure auzoak, gure kaleak, gure lurraldeak nolakoak nahi ditugun pentsatzea ere dagokigu; hots, gure eguneroko bizitza non eta nola egiten dugun hausnartzen jarraitzea. **Beraz, goazen ortzimuga berriak elkarrekin euskaraz pentsatu eta ekitera!**

5- ZEGAKUAK

Ta gazteok zer? Besoak gurutzaturik geratu behar gara guzti honen aurrean?

Euskera ezin dugu ulertu hizkuntza soil bat bezala; Euskerak badu bere herri, borroka eta historia, eta gazteoi dagokigu euskara plaza honetara iristea posible egin dutenenen lekukoa hartzea.

Gu denon eginkizuna da momentu oro euskara presente edukitzea, bai denbora librean, baita parrandan ere. Zarautzen, ordea, askotan ez da erraza parranda erdaldunari euskarazko alternatibarik aurkitzea. Horregatik, ezinbestekoa da aisialdi talde eta jai batzorde euskaldunak bultzatzea eta horiez gozatzea.

Herria eta euskara ardatz izanik, urruntzen ari den herri sentimendua biziberritzea gure esku dago. Elkarrekin gure hizkuntza eta nortasuna indartuz, herri biziago eta batuago bat eraiki dezakegu. Gure esku dago euskaraz bizitzeko eta elkarrekin aurrera egiteko bidea.

Eta hemen zenbatek egiten duzue euskaraz inkontzienteki?

Egungo egoerari erreparatuz, euskeraz egitea hautu politiko bihurtu da, oldarraldi oso bati aurre egiten ari baikara.

Guk iada egin dugu hautua: ZEGA sortu dugu herriko problematika guzti hauei erantzun bat emateko, lehenengo asanblada hurrengo larunbata, irailak 12an izango da Gaztetxean,

Batu eta goazen herri dinamika erdaldunak borrokatuz, euskarari arnasa ematera!

AURKEZLEAK:

Mila esker guztioi herri hobe baten aldeko borroka ere euskaraz eta euskaratik egiteagatik! Eta orain bai, eman diezaiogun gaurko bazkariari hasiera! etor dadila gure Txapas eta abestu dezagun guztiok batera, jan eta edanez hasteko gogoz gaude eta!